



Agur Artsakh, agur Armenia?

Stepanakert-en, Karabakh Garaiko hiriburuan, ikusi ditugun irudiak herri fantasma batenak dira: kaleak hutsik daude, armeniar biztanleek presaka abandonatu dituzten objektuak bakarrik topa daitezke botata. Hiriburu ez ezik, ia eskualde osoa armeniarrez hustuta geratu da, herritar gehienek Azerbaijaneko armadaren etorrera eta okupazioa gertatu aurretik ihes egin dute, errepresioa, umiliazioa edota asimilazioa pairatu aurretik.

Artsakh-eko Errepublikak autoaldarrikatua desagertu da. Azerbaijanek 24 orduko erasoaldia nahikoa izan du armeniarren errendizioa lortzeko. Stepanakerteko agintariak oso ahulduta zeuden 2020ko gerra galdu ondoren, baina, zalantzarik gabe, azken ezpatakadak izan dira azeriar blokeoak eragindako krisi humanitarioa eta Armeniako Errepublikaren abandonua.

Nikol Paxinian, Armeniako lehen ministroa, 2018an iritsi zen boterera *Koloretako iraultzak* lagundurik. Bere programaren oinarria herrialdearen modernizazioa eta garapen ekonomikoa ziren, eta horretarako Mendebaldera gerturatu, demokrazia liberala sustatu eta neoliberalismoa hauspotu nahi zituen. Bere etsaia, eta ordura arte boterean egon zena, Karabakh Garaiko politikarien klana zen. Joera ideologiko nazionalista sozial kontserbadorea dute eta geopolitikoki Artsakh Errepublika defendatzea eta Errusiarekin ententea mantentzea lehenesten dute.

Zaila da ulertzea nola ez duen Armeniak posizio indartsuagoa zuenean negoziatu Karabakh Garaia Azerbaijanen kontrolpera itzultzea

Paxinianek boterea hartu zuenetik helburu nagusienetako bat izan du Armeniako bizitza politiko eta ekonomikotik Karabakh Klanaren eragina ezabatzea. Karabakh Garaiko gatazka amaiarazteak onura asko ekar diezazkiokeen Paxinianen estrategia politikoari. Alde batetik, epe ertainean Karabakh Klana asko ahuldu liteke Artsakh Errepublikaren desagertpenagatik eta, bestaldetik, errusiar aingura askatu eta Mendebaldera gerturatzeke abagunea irekiko litzateke.

Horri guztiari eransten badiogu Azerbaijanek geroz eta nagusitasun ekonomikoa, militar eta demografikoa handiagoak dituela, zentzuzkoak dirudite urte hasieran Paxinianek egin zituen adierazpenek, esanez Armenia prest zegoela onartzeko Karabakh Garaia Azerbaijaneko Estatuko lurra zela. Baina beranduegi zen. Erevani errealismo politikoa falta izan zaio. Zaila da ulertzea nola ez



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

duen Armeniak posizio indartsuagoa zuenean negoziatu Karabakh Garaia Azerbaijanen kontrolpera itzultzea, autonomiaren eta armeniarrentzako segurtasunaren truke. 2020ko gerra hasieran Paxinianek eskualdearen entrega negoziatu izan balu, milaka gazteren bizitza salbatuko zukeen eta seguruenik armeniarrek autonomia izango lukete. Ondoren, beste aukera bat izan zuten gerra amaitzeko elkarrizketetan, baina ez zuten entrega negoziatu autonomiaren truke eta azkenik, 2023an, negoziaketarik gabe Azerbaijanek Karabakh Garai osoa irentsi du.

Baina hor ez da amaitzen arazoa. Bakuk eta Ankarak gehiago nahi dute, Armeniako hegoaldean lurralde turkiarrak Istanbuletik Bakura (*de facto* Kaspiar Itsaso bidez Asia Zentrala arte) konektatuko dituen korridore bat nahi dute. Horretan guztian Turkia da irabazle nagusietako bat, Azerbaijan Kaspiar itsasoko eta Asia Zentraleko lehengaien botilara sarbidea duen kortxo baina. Horregatik, Mendebaldea ere oso interesatua dago, eta beraz, nahiz eta Armenia eta NATOren arteko balizko ezteiak egon, ez dira nahikoa izango Azerbaijanen eta Turkiaren proiektu irredentistei aurre egiteko.

Potentzia handien arteko lehiaren itzulerak bazterrak gehiago nahastuko ditu Kaukason, horregatik, Armeniako Estatuak bizirik jarraitu nahi badu, Erevanek hobe du Tbilisiko egungo agintari politikoen kanpo-politika pragmatikoa-gotik ikasi. ●